

Irakurgaia

Bost koloretako ibaia

Zer polita izango litzatekeen ostadarrean bainatzea, ez da hala? Ezinezkoa badirudi ere, aukera hori ematen du Kolonbiako Caño Cristales ibaiak. Izen horrez gain, bost koloretako ibaia eta munduko ibairik ederrena ere esaten diote.

Izadiaren bitxikeria hori Kolonbiako Macarena mendilerroan dago, Andeetako ekialdean. Mendilerro hori Amazonia, Andeak eta Orinoco ibaia batzen diren gunean dago, oso ingurune berezian. Horren ondorioz, fauna eta landaredia oso aberatsak dira.

Baina zergatik da Caño Cristales horren ibai koloretsua? Bi arrazoi daude horretarako. Alde batetik, Macarena mendilerroa antzina-antzinakoa da, eta oso haitz gogorrekoa. Ibaiko urak ere badu eragina: garden-gardena da eta harrizko hondoa ederki ikusten da.

Bestetik, ibaiko harriak eta haitzak goroldioz eta koloretako algaz estalita daude. Alga horietako bat, *Macarenia clavigera* izenekoa, kolorez aldatzen da urte sasoiaren arabera. Udan, ibaiaren ur emaria asko gutxitzen denez, alga uretatik kanpo geratzen da. Eguzkiak lehortu egiten du eta kolore gorrixka hartzen du.

Beraz, ur gardena batetik eta landarez estalitako haitzak bestetik, hortxe daukagu naturak egindako margolan ikusgarria, bost kolore eder erakusten dituen: gorria, urdina, berdea, horia eta beltza. Ez al zaizu naturaren artelan hori noizbait ikusteko gogo sortu?

Esan esaldi hauek E (egia) ala G (gezurra) diren.

Caño Cristales ibaiari bost koloretako ibaia eta munduko ibairik ederrena esaten diote.

Macarena mendilerroa Andeetako iparraldean dago.

Macarena mendilerroa oso haitz bigunekoa da.

Udan, ibaiaren ur emaria asko gutxitzen da.

Macarenia clavigera alga baten izena da.

Ibaia kolorez janzten da, ura oso gardena delako eta haitzak lorez estalita daudelako.

Berridatzi gezurra diren esaldiak, zuzenduta.

Lotu hitzak eta definizioak.

emaria

landaredia

mendilerroa

Toki batean hazten diren landareen multzoa.....

Mendikatea baino txikiagoa izan ohi den gailurren segida.....

Ibai batek daraman ur kantitatea.....

Lotu hitzak eta atzizkiak, eta idatzi. Ondoren, lotu sortutako hitzak esanahi egokiarekin.

eder -keria Itxura ona izatea.

ikus -tasun Ikusteko modukoa dena.

kolore -tsu Kolore asko duena.

bitxi -garri Gauza arraroa.

Berridatzi esaldiak, nabarmendutako hitzen ordezk beheko hitz hauek erabiliz.

murritzten

idortzen

elkartzen

Macarena mendilerroa Amazonia, Andeak eta Orinoko ibaia **batzen** diren gunean dago.

Udan, ibaiaren ur emaria asko **gutxitzen** da.

Eguzkiak alga **lehortzen** du eta horrek kolore gorrixka hartzen du.

Irakurri esaera zahar hau eta aukeratu esanahi zuzena.

Ez ito ur barik

- Astiro edan behar da, arazorik ez izateko.
- Ez da larritu behar arazorik ez dagoenean.